

II

EUSKALTZAINDIA'REN

LENENGO URTEKO BATZARAK

Mila bederatzireun eta emeretzi-gafen urteko urfilaren zazpitik, mila bederatzireun eta ogei-gafeneko urfilaren len eguneraño, Euskaltzaindia'k bere kideak batzafean ogei-ta-bi bider bildu zituan.

BILBO'n, 1920'ko otsailaren 16 eta 17'an; epailaren 24 eta 26'an.

DONOSTIA'n, 1919'ko urfilaren 7 ta 26'an (goiz ta afats); azaroaren 13 (g. ta a.) ta lotazilaren 23'an; gero, 1920'ko urtaril edo ilbeltzaren 7 ta 8'an, jofailaren 25 ta 26'an, ofilaren 24 ta 25'an, garagarilaren 22 ta 23'an.

IRUÑA'n, 1920'ko uztañilaren 23 ta 24'an.

Ona emen, egunetik egunera, batzañ orietan Euskaltzaindia'k bururatu dituan lanak:

LENDABIZIKO TA BIGAREN BATZARAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, urfilaren 7'an)

ALKIETAN ZEUDEN: Julian Eloñza, Gipuzkoa'ko Aldundi ta Eusko-lkaskuntza'ren Buru dana; Angel de Apraiz, Eusko-lkaskuntza'ren idazlari lena; Agefe, Agife, Azkue, Broussain, Campion, Eguzkizta, Eleizalde, Inzagarai, Lhande, Olabide ta Urquijo, euskaltzaiñak.

I.—GOIZ BATZARALDEA

1. ELORZA jaunak euskaltzaiñ befieri ongi-etofizko agufa euskera garbiz emanez-kero, Eusko-lkaskuntza'ren idazlariak ezagutarazi zuan irailaren 21'ko batzafean izendatu ziran euskaltzai-

ñak, bat ez besteak, onafu zutela egin zieten eskaiña. Ezesle bakañ hura Adema apaiz jauna zan. (1)

Ofen ordez BROUSSAIN eta LHANDE'k eskatu zuten Martin Landerreche, lapurtañ apaiz, ta *Euskalzaleen-Biltzar'*eko idazkizaiñ jauna izendatua izan zedila. Ta guziak, autafkiz, onetsi zuten. (2)

2. Era berean Euskaltzaindia'k itzaftu zuan Aita Leiza, S. J., Kastila'ko Lenburu Agufgafia'ri idaztea, ark Aita Olabide'ri, al baldin bazan, euskerazko lanetarako beañ duan astia eman zezayon. Autafki ortan OLABIDE ta LHANDE, bere Lenburuari diozkaten itzala gatik, etziran saftu.

3. ELORZA'k orduan Euskaltzaindia'k bere Zuzentzaile edo Burua autatzea eskatu zuan. Baña ¿nolakoa izango ote zan? ¿Betikoa edo epe batekoa? Geienak bildu ziran ELEIZALDE eta LHANDE'ren aburuari: epe batekoa izan beañ zala, bi urtetakoa, baña bera bietan ta geiagotan autatu litezkena.

(1) Ona aren ezezkoa:

Baiona, buruilaren 28'an, 1919'an.

Ene jaun onak,

Eskerrik minenak dauzkitzuet zuek nitaz egin duzuen hautuaz; bainan behar dautzuet berehala aitortu ez naizela gei hoinbertze goretsia izaiteko. Ezen, zuen lanetan deus onik egitekotz, lagun bakochak behar lituzke jakin gure Euskal-herriko mintzaira mota guziak. Eta nik erranen dautzuet lañoki ez dakizkatala batere ez Bizkaiako ez Gipuzkoako eskuara bereziak.

Bertzalde, oraiko nere egitekoekin, ez nuke astirik aski zuen bilkuretan behar liteken bezen maiz aurkitzeko. Baditut bi astekari ene gain: bat, eza-gutzen duzuen «Eskualduna»; bertzea, jaun apezpikuaren astekaria, «Bulletin Religieux du Diocèse de Bayonne». Hoik guzien'gainerat, niri emana zait Baionako eliza nausian behar direnen erostea, horko ontasunen zaintzea eta artatzea.

Errechki ikusten duzue, holako lanekin bertze deus guti egin dezaketala. Beraz zuhurtzia liteke hauta dezazuen, ene orde, bertze norbeit, nik baino asti eta jakitate gehiagorekin lagunduren zaituztena.

Othoizten zaituztet, ene jaun onak, onets detzatzuen, ene eskerrekin, agurrik hoberenak.

J. BLAISE ADÉMA
Baionako Kalonjea.

(2) Ikus. Eusko-Ikaskuntza'ren txartel-kutxan gordea dan batzañ ofen erabakia, erderaz ta idazkiñaz idaztia. (*Archiv. de Eusk. Ikask., docum. Academia Vasca A B.*)

Gai ofetaz Euskaltzaindia'ren Araudiak diona irakurri zan ta autafkiak bildu ziran.

Lendabiziko autaldian inork, bear diran baiak etzituan beretu. Bigafenean AZKUE, zazpi autafkiz, autatua izan zan. Ona emen autafkuntza ofen gora-beerak:

	<u>LEN INGURUAN</u>	<u>BIGAREN INGURUAN</u>
AZKUE'ri	5 autafki	7 autafki
CAMPION'eri	3 »	3 »
OLABIDE'ri	2 »	1 »
URQUIJO'ri	1 »	

ELORZAK Azkue Euskaltzaindia'ren Buru izendatu zuan. Orduan au bere lendakarizko alkian jafi zan eta euskaltzain guzieren eskefak eman zien, esanaz:

«Eskefak, lagun maiteak, aulki onetan eserarazi nauzutelako. *Ziri* ta *sari* dedala uste det zuen autatze au: ziri, auferantzean orainarte baino ere gogofago lan egin dezadan; sari, lan egin ditudanen ezaugafitzat. Gure egipidea (programa) beste bi itz auetan sar edoditeke: *emeki* ta *gizonez*. Emeki, biguñ, astiro; baina ez emakume bezela, gizonai dagokitenez baizik. Gure lanetan beaztopoa, eragozpen ta buruauste, zirikada ta nayezak maiz izango ditugu enura gabe. Iraunkor ta gogotsu bagera, azken on batera elduko dira gure lanak.»

5. Berealaxe beste arduretarako gizonak autatu zituzten:

DiruzaiGORAKO: AGERE, 4 aut. (3 Eleizalde'ri, 3 Intzagaray'eri, 1 Urquijo'ri)

LiburuzainGORAKO: URKIJO, 8 aut. (3 Eleizalde'ri)

Zadoflarigorako: ELEIZALDE, 9 aut. (2 Lhande'ri)

6. Euskaltzaindia'ren Eusko-Ikaskuntza'rekiko begiruneak adiskidantza osozkoak izan bear zirala erabaki zan, Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntza'ren alaba (naiz askatua) dalako.

7. Gai ori ta beste aflo batzuk beaf bezela argitu beafez Euskaltzaindia'k eskatu zien Azkue, Eleizalde ta Olabide'ri, batzorde batean jafi ta, *Araudi estari* bat (Reglamento interior) gogoratu ta idatzi zezaten.

8. Euskaltzaindia'k ¿non izango zuan bere egoitza edo bizitokia? ¿Bilbo'n ala Donostia'n? ELEIZALDE'k, gogo ta biotz beroz Bilbo autatua izan zedila eskatu zuan, darakuskun Euskalduntasun ta erikoitasunari erantzuteagatik. Ta ala egin zan, baña edozein eritan batzarak biltzeko askatasun osoz. (1).

9. Azkenik, Euskaltzaindia'k nondik bere bizipidea bilduko ote zuan, kideen artean ikeritu zan. *Eusko-Ikaskuntza*'k ematen diozkan elpideez gañera, Euskaleriko Aldundi ta beste Baltzu zifnezkoeri laguntza eskatu bea zitzayela erabaki zan. (2).

Oarak. Itzartu zan bezela, Euskaltzaindia'k:

1nik. Landerreche euskaltzaindizat autatu zuan.

2nik. Aita Leiza I'sen L'ko buruordekoari, esan dan eran, idatzi zion.

3nik. Azkue buru, Agefe diruzain, Urkijo liburuzain, ta Eleizalde idazlari jañ zitan.

4nik. Lau Aldundi'eri bizipidezko laguntzak eskatu zitzaizkiten.

II.—ARATSALDEKO BATZARALDEA

1. Euskaltzain deduzko (Académicos de honor) ta euskaltzain urgazle (correspondientes) batzuk izendatu bea ziralta Euskaltzaindia'k erabaki zuan. Txede ortarako, omen geenezko euskaltzaleen izen lefokada bat bein-beinean bildu zan ta idazlariari, izen pilo ori idazkailuz jo ta kideen artean yauf zezan agindu zioten,

(1) Ikus. aitatu degun erdel idazkainitza: «El domicilio de la Academia, á propuesta del señor Eleizalde y consultados los académicos de otras regiones, se resolvió establecerlo en Bilbao, como tributo debido al fuerte impulso que surge de aquella villa para todas las manifestaciones de la vida vasca. Allí radicarán las oficinas y demás dependencias estables de la Academia, sin perjuicio de que las reuniones puedan celebrarse en San Sebastián y otros puntos que se juzguen convenientes.»

(2) «La Academia recabará del país, y especialmente de sus Corporaciones públicas, la concesión de donativos y subvenciones que le permitan disponer de fondos propios, aparte del auxilio que le preste la Sociedad de Estudios Vascos.» (*Comunic. á la Prensa, octubre 1920*)

zetoñen batzafan autatu beaf ziranen izenak nork berak ondo gogoratu ta begizta zitzañ. (1).

2. Euskeraren idazkera Euskaltzaindia'k autetsi arteraño, edozeñez idatzi ditekela erabaki zan. (2).

3. Euskaltzaindia'ren araudia zuzentzeko autatu ziran euskaltzainiak Bilbo'n urñilaren 19'an, ta euskaltzainñ guziak beren irugañen batzaferako Donostia'n urñilaren 26'an biltzea agindu izan zan.

4. Bere lan guzien buruan Jainkoaren izena ipiñi naiez Euskaltzaindia'k au erabaki zuan: Kide guziok, Santa Maria'ko eleizan bildurik, zetoñen batzafaren goizean, Gogo Santua'ren meza lenik entzun zezatela.

5. Azkenik BROUSSAIN'ek bere kide guziori eskatu zien iñoiz Euskaltzaindia'ri aukazko Lagundi'ren-bat an edo emen jasoko balitz, oferi oraindanik bere izen eta laguntza betiko uka zezatela. Ta guziak, gogo biotzak bateraturik, Euskaltzaindia'ri ziñ ofi eman zioten. (3).

Oafak. Esan-ta, auexek egin ziran:

1k. Idazlariak kide bakoitzari euskaltzale geienen izen pñloak bidali zizkion.

(1) «En la próxima sesión plenaria se designarán los académicos correspondientes, para lo cual se formó en la reunión última una lista de los más distinguidos cultivadores del idioma vasco, de todas las regiones y escuelas literarias, como también de las personas de gran relieve científico, de fuera del país, cuya labor en la materia les hace merecedores del título de Académicos Honorarios.» (*Antze.*)

(2) «En lo que respecta al language y ortografía euskérica que se han de emplear, se acordó que hasta que la Academia adopte otras resoluciones sean los que cada autor ha venido acostumbrando.» (*Archiv. Eusk. Ikas. docum. Acad. Vasc.*)

(3) «Terminó la reunión con entusiasmas acuerdos adoptados unánimemente á propuesta del señor Broussain, alcalde de Hasparren, de firme adhesión á la Academia que con el apoyo que ya le han otorgado las cuatro Diputaciones Vasças y la suma de voluntades que en ella convergen y que se desea cada día mayor, puede realizar una obra en pro del euskera, que, comprendida con tal oportunidad, mesurados propósitos y sereno entusiasmo, hace esperar que sus resultados han de ser aplaudidos por todos.» (*Comunic. Prens. octubre. 1920*)

2k. Araudiaren zuzentzaileak (Azkue, Eleizalde ta Olabide) Bilbo'n, urilaren 19'an, bildu-ta, eskaturikako egikizunak bete zituzten.

3k. Bi batzar orietako befi ta erabakiak, idazkizaiñaren eskuz, izpafingi edo egunkarietan jafiak izan ziran.

IRU TA LAU-GAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, urilaren 26'an).

ALKIETAN ZEUDEN: Azkue, buru; Agife, Broussain, Campion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagaray, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo.

1. AZKUE'k Landerreche'ri ongi-etoñizko agufak eman ondorean, onek, Lapurdi'ko euskera garbiz, Euskaltzaindia'ri eskefak biurtu zizkion.

2. AZKUE'k ezagutarazi zuan Bizkai'ko Aldundi-Buru jaunak eta Bilbo'ko Auzapaiz edo Udalburu jaunak oneritxi zutela Euskaltzaindia'ren egoitza Bilbon izateko asmoa, ta ortarako laguntza osoa eskaifii ziotela.

3. Aita Leza, Jesusen Lagundi'ko Buruordekoa'k, Euskaltzaindia'k Aita Olabide'rentzat asti geiago eskatu zion eskutitzari emandako asmo onezko erantzupena irakufi zan. Ta Euskaltzaindia'k bere idazlariari agindu zion bere izenean eskefak Aita Leza'ri biurtu zeizkiola.

4. *Eusko-Ikaskuntza*'k eskeñi ziozkan euskal Abizen ta Tokizeneko agerkaiak (*Dòcumentos de Patronimia y Toponimia vascas*) Euskaltzaindia'k eskuratu zituan.

5. Euskaltzaiñ deduzkotzat (*Académicos de honor*): Patricio de Orcaiztegui Tolosa'koa, Hugo Schuchardt Gratz'koa, Julien Vinson Paris'koa ta C. C. Uhlenbeek Leide'koa autatuak izan ziran.